

Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 FORU ARAUA.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako foru arau osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru arauaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

I. TITULUA XEDEA, APLIKAZIO EREMUA ETA ORDEZKO ARAUDIA.....	5
1. artikulua. Xedea.	5
2. artikulua. Aplikazio eremua.	6
3. artikulua. Ordezko araudia.	6
II. TITULUA IRABAZI ASMORIK GABEKO ENTITATEEN ZERGA ERREGIMEN BEREZIA	6
I KAPITULUA: ARAU OROKORRAK	6
4. artikulua. Irabazi-asmorik gabeko entitateak.	6
5. artikulua. Irabazi asmorik gabeko entitateen beharkizunak.....	7
6. artikulua. Zerga helbidea.....	9
II. KAPITULUA: SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA ETA EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA	10
7. artikulua. Araudi aplikagarria.	10
8. artikulua. Errenta salbuetsiak.	10
9. artikulua. Ustiapen ekonomiko salbuetsiak.	11
10. artikulua. Oinarri ezargarria zehaztea.	11
11. artikulua. Balorazio arauak.	11
12. artikulua. Karga tasa.	11
13. artikulua. Kontabilitate obligazioak.	12
14. artikulua. Atxikipenari lotu gabeko errentak.	12
15. artikulua. Aitortzeko obligazioa.	12
16. artikulua. Zerga erregimen berezia aplikatzea.....	12
III. KAPITULUA: UDAL ZERGAK	12
17. artikulua. Udal zergak.	13
III. TITULUA MEZENASGOAREN ALDEKO ZERGA PIZGARRIAK	14
I. KAPITULUA: ENTITATE ONURADUNAK	14
18. artikulua. Mezenasgoaren entitate onuradunak.	14
II. KAPITULUA: DOHAINTZA ETA EKARPENEN ZERGA ERREGIMENA	14
19. artikulua. Emaiza, dohaintza eta ekarpen kengarriak.	14
20. artikulua. Emaiza, dohaintza eta ekarpenengatik egin daitezkeen kenkarien oinarria.	15
21. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako kuotaren kenkaria.	16
22. artikulua. Dohaintzen kenkaria sozietateen gaineko zergaren zerga oinarria zehaztean.	17
23. artikulua. Kuotako kenkaria ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan.	17
24. artikulua. Emaiza, dohaintza eta ekarpenetatik etorritako errentak salbuestea.....	17
25. artikulua. Emaiza, dohaintza eta ekarpen kengarriak egiaztatzea.....	18
25 bis artikulua. Entitate ez-egoiliar jakin batzuen alde egindako emaitza, dohaintza eta ekarpen kengarriak justifikatzea.	18
III. KAPITULUA: BESTE MEZENASGO ERA BATZUEN ZERGA ERREGIMENA.....	19
26. artikulua. Enpresek onura orokorreko jardueretan laguntzeko lankidetzak hitzarmenak.	19
27. artikulua. Onura orokorreko jardueretarako gastuak.	19
28. artikulua. Dohaintzan emateko artelanak eskuratzea.....	20

IV. KAPITULUA: LEHENTASUN AITORTUA DUTEN JARDUEREI ETA APARTEKO INTERES PUBLIKOA	
DUTEN GERTAKARIETAN LAGUNTZEKO PROGRAMEI APLIKATZEKOAK DIREN ZERGA PIZGARRIAK	22
29. artikulua. Mezenasgorako lehentasunezko jarduerak	22
30. artikulua. Aparteko interes publikoa duten gertakarietan laguntzeko programak.	23
31. artikulua. Elkarrekikotasuna.	25
V. KAPITULUA. ZERGA ONURAK APLIKATZEKO BALDINTZA KOMUNAK.....	26
32. artikulua. Zerga onurak aplikatzeko baldintza komunak	26
XEDAPEN GEHIGARRIAK	26
Lehena. Alderdi politikoen aldeko dohaintzen zerga erregimena	26
Bigarrena. Sozietateen gaineko Zergari buruzko 1996ko uztailaren 4ko 7/96 Foru Araua aldatzea.	26
Hirugarrena. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko 1987ko abenduaren 30eko 18/87 Foru Araua aldatzea.	29
Laugarrena. Euskaltzaindia, Espainiako Institutua eta errege akademiak.	29
Bosgarrena. Espainiako Gurutze Gorria eta ONCE (Espainiako Itsuen Erakunde Nazionala).....	29
Seigarrena. Entitate erlijiosoetako fundazioak.	30
Zazpigarrena. Eliza Katolikoaren eta beste eliza, fede eta komunitate erlijiosoen zerga erregimena.	30
Zortzigarrena. Aurrezki kutxen gizarte ekintzak.	30
Bederatzigarrena. Kirol federazioak.....	30
Hamargarrena. Lehentasunezko jarduerak.	31
Hamaikagarrena. Arauei buruzko aipamenak.	31
Hamabigarrena. Kooperatiben zerga erregimenari buruzko 1997ko maiatzaren 22ko 2/97 Foru Arauaren aldaketa.	31
Hamahirugarren xedapen gehigarria. Foru arau honetako zerga onuren bateraezintasuna.....	31
Hamalaugarren xedapen gehigarria. Izatezko bikoteak	31
XEDAPEN IRAGANKORRAK	32
Lehena. Interes Orokorreko Jardueretan Ekimen Pribatuari Zerga Pizgarriak emateari buruzko 1995eko martxoaren 24ko 5/95 Foru Arauaren babesean emandako salbuespenen erregimen iragankorra.	32
Bigarrena. Irabazi asmorik gabeko entitateek izendatutako merkataritza sozietateen administratzaileen erregimen iragankorra.	32
Hirugarrena. Estatutuak egokitzea.	32
Laugarrena. Zerga erregimen berezia aukeratzea.	32
XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA	32
AMAIERAKO XEDAPENAK.....	32
Lehena. Arauak emateko ahalmena.....	33
Bigarrena. Indarrean jartzea.	33

HITZAURREA

Azken hamar urteetan aurrerapen handia egin dute irabazi asmorik gabeko entitate pribatuak. Gizartea gero eta gehiago jabetu da onura orokorreko jardueretan sektore pribatuak parte hartu beharraz eta sektore publikoari lagundu beharraz, askotan sektore publikoa ez delako iristen Ongizatearen Estatua deritzanaren babesean sortu diren premia gero eta handiagoei komeni den neurrian erantzutera. Horren ondorioz, entitate berriak sortu dira eta herritarren aldetik horienganako laguntza gehitu da.

Aurrerapen horrekin, ordea, 1995eko martxoaren 24ko 5/95 Foru Araua, Ekimen Pribatuari Interes Orokorreko Jardueretan Parte Hartzeagatik Pizgarri Fiskalak emateari buruzkoa, atzeratuta geratu da, eta honako foru arau berri hau, gai horretako araudi zaharraren ordeztu besterik gabe modernoago bat ezartzera dator, helburu hauekin: Alde batetik, bere eremuan sartzen diren entitateei segurtasun juridikoa eskaintzea; beste batetik, araudiaren aplikazioari begira entitate horiek bete beharreko baldintzak malgutzea; eta, bestetik, gizarteak onura orokorreko jardueretarako egiten dituen ekarpenei ematen zaien zerga tratamendua hobetzea.

Foru arau honek hogeita hamaika artikulua ditu, eta hiru titulutan egituratuta dago. I. tituluan, foru arauaren xedea, aplikazio eremua eta ordeztu araudia jasotzen dira, soil-soilik. Foru Arauak beste titulu zabal bana eskaintzen die bere xedea osatzen duten bi eremuei, hau da, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari titulu bat, eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei beste bat.

II. titulua, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimena arautzen duena, hiru kapitulutan banatuta dago. Lehenbizikoak zehazten du zer baldintza bete behar dituzten fundazioek eta herri onurakotzat hartutako elkarteek, foru arau honen ondorioetarako irabazi asmorik gabeko entitate gisa hartuak izan daitezkeen eta, ondorioz, foru arauak ezartzen duen zerga erregimenean sartzeko aukera eduki dezaten.

Aukera hori nahi duenak egin dezake, ezarritako baldintzak betetz gero, eta horretarako nahikoa du Fiskaltaterako eta Finantzeterako Departamentuari hala adieraztea. Aurrerantzean ez du, beraz, lehen aplikatzen zitzaion erreguzko izaera.

Betebeharren artean nabarmenena da, aurreko araudian gertatzen zen bezala, entitateak bere ustiapen ekonomikoetatik eta ondasun edo eskubideen eskualdaketatik etorritako errenten % 70 gutxienez entitatearen xedeetarako erabili behar duela, nahiz eta berrikuntza bat badagoen, horietatik salbuesita geratuko baitira entitateak bere berezko jardueran erabiltzen dituen ondasun higiezinak besterentzeak ekarritako diru kopuruak, baldin eta xede bera izango duten higiezinetan inbertitzen badira berriro.

Aipatutako betebehar hori betetzeko lau urteko epea ezartzen da, baina nabarmendu behar da salbuespena egiten dela hiru urte baino gehiagoan eduki diren balioen kostu bidezko eskualdaketatik etorritako errenten kasuan, eta horrelakoetarako hamar urteko epea ezartzen dela.

Oro har, entitateek ezin dituzte beren sortzaileak edo zuzendaritza organoetako kideak, edo haien familiakoak, entitatearen jardueren hartzaile nagusi egin, ezta halakoen aldeotasun berezirik agertu ere.

Gainera, bai aipatutako zuzendaritza organoetako kideek, eta bai, entitatea merkataritza sozietateren bateko kapitalean partaide bada, entitatearen ordezkari diren administratzaileek, doan egin behar dute beren karguari dagokion lana, nahiz eta lan horrek lekarzkiekeen gastuengatik ordaina jaso dezaketen.

Entitatea desegitekotan, desegindako entitatearen ondare oso-osoak joan beharko du, edo Foru Arauan ezarritako baldintzen arabera mezenasgoaren onuraduntzat hartutako beste entitate baten eskuetara, edo onura orokorreko xedeak dituen eta fundazioa ez den entitate publiko batenetara.

Azkenik, derrigorrezko betebeharra dute urtero memoria ekonomikoa egitea, bertan jasorik, kategoriaz kategorია eta proiektuz proiektu, ekitaldiko diru sarrerak eta gastuak, eta merkataritza sozietateetan duten partaidetza portzentajea.

II. tituluko II. kapituluan, Sozietateen gaineko Zerga irabazi asmorik gabeko entitateei nola aplikatuko zaien azaltzen da, eta, hasteko, hemen jasotzen ez den guztian Sozietateen gaineko Zergaren Foru Araua beteko dela ezartzen da.

Sozietate Zergan, salbuetsi egiten dira, ordainik eman gabe eskuratuta, sorburu hauetatik datozen errentak: Ondare higigarri nahiz higiezinetik etorriak, ondasun edo eskubideak eskuratzetik edo eskualdatzetik etorriak, eta salbuetsitako ustiapen ekonomikoen jardueratik etorriak, baita, errenta salbuetsietatik datozenak izanik, irabazi asmorik gabeko entitateei esleitzekoak direnak ere.

Ustiapen ekonomikoen jardueratik datozen errentei trataera berri bat ematen die zerga erregimen honek, salbuetsi egiten baititu entitatearen helburu edo xede espezifikoak betetzeko egiten diren jardueretatik datozen errentak, jarduerak izaera lagungarri edo osagarria badu ere. Horretaz esan behar da, jarduerak lagungarri edo osagarritzat hartua izateko, gehienez ere, kopuruz, entitatearen eragiketa bolumenaren %25 izan behar duela. Era berean, salbuetsita geratuko dira garrantzi txikiko ustiapenak, halakotzat hartuko direlarik 30.000 euro edo gutxiagoko eragiketa bolumena dutenak.

Oinarri ezargarriari %10eko tasa aplikatuko zaio, hau da, lehengo araudian zegoena bera.

III kapitulua osatzen duen udal zergei buruzko artikulua bakarrean, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan eta Jarduera Ekonomikoenean salbuespenak egiteko zeuden muga batzuk kendu egin dira, eta Lurzoru Hiritarren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergan salbuespen bat sartu da, irabazi asmorik gabeko entitateentzat.

III. tituluak mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak arautzen ditu, eta horien hartzaile izan daitezkeen entitateen zerrenda ematen du.

Dohaintzen eta ekarpenen erregimen fiskalari buruzko atalean, berrikuntza gisa sartzen da, Sozietateen gaineko Zergari eta Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari dagokienez, subjektu pasiboak direnek pizgarri fiskalak ematea bai eskubideen dohaintzari zein ondasun, eskubide eta balioen gaineko gozamen eskubide errealak eratzeari, hori guztia kontra-prestaziorik gabe, bai zerbitzuak doan eskaintzeari-«zerbitzuen dohainak» izendatu ohi direnak.

Kontzeptu horiengatik egingo diren kenkarien oinarria finkatu eta gero, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokion kuotan emaitza, dohaintza eta ekarpenen % 30eko kenkaria ezartzen da, eta % 25ekoa Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari dagokionean, establezimendu iraunkorrik gabeko zergadunentzat.

Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek eta establezimendu iraunkorra duten Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek egindako ekarpenak, berriz, indarrean dagoen tratamenduarekin jarraituz, partida kenkaridun izango dira, bi zerga horien oinarri ezargarria kalkulatzeko garaian.

III. kapituluari, mezenas jarduketari jakin batzuetan aplikatu daitezkeen zerga onurak azaltzen dira; zehazki, enpresek mezenasgoaren onuradun kalifikatutako entitateei onura orokorreko jardueretan laguntzeko lankidetzari hitzarmenetan eta onura orokorreko xedeetarako egindako gastuetan aplikatzekoak. Hor bada berrikuntza bat: Gastu kengarrietan lehen zeuden mugak ezabatu egin dira. Bestalde, dohaintzan emateko artelanak eskuratzeari ematen zaion trataerak bere horretan jarraituko du.

IV. Atalean, urteroko lehentasunezko zatitza jotzen diren mezenasgo jarduerak bete beharko duten araudia zehazten da, eta berrikuntza gisa, aurreko araudian zeuden mugak ezabatzeaz gain, interes publiko berezikoak diren gertaerei laguntza emateko programak sartzen dira.

Era berean, eta partaidetza pribatua lehentasunezko jardueretan sustatzearren, gaur egun dagoen kenkaria %18raino igotzen da; adierazitakoak, oinarri ezargarria zehazteko eraginetarako kengarria den partidatzat hartzearekin batera, esan nahi du, errealitatean, egindako ekarpenaren %50 baino gehiagoko eragin fiskala dela.

Gai horri dagokionez, azken artikuluan, lehen aldiz, Estatuaren eta beste foru lurraldeen aldetik lehentasun aitortua duten jarduerari eta aparteko interes publikoa duten gertakarietan laguntzeko programei begira oro har, elkarrekikotasun irizpide bat ezartzen du, baldintza soilak izanik haien araudietan Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako jarduerari eta programari aintzat hartzea.

Xedapen gehigarrien eginkizuna da, azkenik, alde batetik, artikulua batzuk aldatzea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gainekoa, eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gainekoa erregulatzen dituzten foru arauetan eta kooperatiben zerga erregimenari buruzkoan, eta, beste aldetik, berezitasun batzuk ezartzea aurrezki kutxen gizarte ekintzei, kirol federazioei, entitate erlijiosoei, eta Eliza Katolikoaren eta beste eliza, fede eta komunitate erlijiosoen zerga erregimenari aplikatzekoak.

I. TITULUA

XEDEA, APLIKAZIO EREMUA ETA

ORDEZKO ARAUDIA

1. artikulua. Xedea.

Foru arau honen xedea da bere baitan definitutako irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimena arautzea, gizarte eginkizunari, jarduerari eta ezaugarriari dagokienez.

Halaber, bere xedea da mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak arautzea ere. Foru arau honen xedeetarako, mezenasgotzat hartzen da interes orokorreko jarduerak egitean parte hartzen duen ekimen pribatua.

2. artikulua. Aplikazio eremua.¹

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak, eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauak 2. artikuluan ezarritakoagatik Gipuzkoako zerga araudiaren menpe dauden zergadunei aplikatuko zaie foru arau honetan xedatutakoa.

3. artikulua. Ordezko araudia.

Foru arau honetan jasota ez dagoen guztian, Gipuzkoako zerga araudia aplikatuko da izaera orokorrean.

II. TITULUA

IRABAZI ASMORIK GABEKO ENTITATEEN ZERGA ERREGIMEN BEREZIA

I KAPITULUA: Arau orokorrak

4. artikulua. Irabazi-asmorik gabeko entitateak.²

Foru arau honen ondorioetarako, irabazi-asmorik gabeko entitateak joko dira, ezarrita dauden beharrezkoak betetzen badituzte betiere, hurrengo artikuluan aipatzen diren hauek:

a) Fundazioak eta herri onurakotzat hartutako elkarteak, egoitza lurralde espainiarrean dutenean, eta haien federazio eta elkarteak.

b) Lurralde espainiarren egoiliar ez diren entitateak, bertan establezimendu iraunkor bidez jarduten dutenean, aurreko a) letran aipatutakoen modukoak badira.

Egoitza paradisu fiskaltzat kalifikatutako herrialde edo lurraldeetan duten entitateak hortik kanpo geratzen dira, salbu eta, Europar Batasuneko estatu kide bat izanik, frogatzen bada entitatearen eraketa eta jarduna arrazoi ekonomiko baliozkoei zor zaiela.

c) Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu kide batean egoiliar diren entitateak, lurralde espainiarrean establezimendu iraunkorrik gabe jarduten dutenean eta aurreko a) letran aipatutakoen modukoak direnean, baldin eta estatu kide horrekin Espainiak zerga arloko informazio trukea egiten badu Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak hamargarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuan ezartzen duen moduan.

¹ Artikulu hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUAREN 6. artikuluko bigarren ordinalaren bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO) eta aldaketak 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

² Artikulu hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUAREN 6. artikuluko bigarren ordinalaren bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO) eta aldaketak 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

Egoitza paradisu fiskaltzat kalifikatutako herrialde edo lurraldeetan duten entitateak hortik kanpo geratzen dira, salbu eta frogatzen bada entitatearen eraketa eta jarduna arrazoi ekonomiko baliozkoei zor zaiela.

5. artikulua. Irabazi asmorik gabeko entitateen beharkizunak

Aurreko artikuluan aipatutako entitateak irabazi asmorik gabeko entitateetat hartuko dira, foru arau honen ondorioetarako, baldin eta ondorengo beharkizunak betetzen badituzte:

1. Interes orokorreko helburuetarako, hurrengo errenta eta diru sarreren ehuneko 70 gutxienez ematea:

a) Haien ustiapen ekonomikoen errentena.

b)³ Haien jabetzako ondasun edo eskubideak eskualdatzean lortutako errentena.

Errenta horiek kalkulatzeko, ez dira sartuko:

a') Ondasun higiezinak kostu bidez eskualdatzean lortutako errentak, higiezin horietan gauzatzen duenean berariazko xedeari lotutako jarduera, baldin eta eskualdaketa zenbatekoa berrinbertitzen bada berariazko xedeari lotutako ondasun eta eskubideetan.

b') Ondare zuzkiduran sartuta dauden edo irabazi asmorik gabeko entitatearen sorreran edo estatutuetan jarritako xedeei zuzenean eta iraunkorki atxikita dauden titulu, balore, eskubide ekonomiko edo ondasun higigarriak kostu bidez eskualdatzean lortutako errentak, baldin eta kontraprestazioa berrinbertitzen bada zuzkidura izaera duten edo berdin atxikita dauden ondasun edo eskubideetan.

c) Beste edozein kontzeptu dela medio lortutako sarrerena, sarrera horiek lortzeko izandako gastuak gutxituta. Sarrera horiek lortzeko izandako gastuak, bidezkoa denean, hainbat gasturen zati proportzionalaz osatu ahal izango dira, sarrerak lortzeko baliagarriak diren neurrian: Kanpoko zerbitzuen gastuak, langileria gastuak, kudeaketako bestelako gastuak, gastu finantzarioak eta zergak. Kalkulu horretatik kanpo geratuko dira estatutuetako xedek edo irabazi asmorik gabeko entitatearen helburua betetzeko izandako gastuak. Sarrerak kalkulatzeko, ez dira sartuko ondare-hornidura gisa hori eratzean edo geroago jasotzen diren ekarpenak edo dohaintzak.

Irabazi asmorik gabeko entitateek ondare-hornidura edo erreserbak gehitzera zuzendu beharko dituzte gainerako errenta eta sarrerak.

Beharkizun hori betetzeko epea errentak eta sarrerak lortu diren ekitaldiaren hasieratik ekitaldi hori itxi ondorengo lau urteetara bitartekoa izango da, non eta hiru urte baino gehiagoan eduki diren balioen kostubidezko eskualdaketatik etorritako errentak ez diren, horrelakoentzat epea hamar urtekoa izango baita.

2. Jarduera ez izatea estatutuetan jasotako xedeari lotu gabeko ustiapen ekonomikoen garapena. Beharkizun hori beteta dagoela ulertuko da, estatutuetako xedeari lotu gabeko ustiapen ekonomiko ez-salbuetsien multzoak

³ Letra hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 12. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

ekitaldiaren barruan izan duen eragiketa-bolumena ez denean entitatearen eragiketa-bolumen osoaren %40tik gorakoa, baldin eta ustiapen ekonomiko ez-salbuetsi horien garapenak ez baditu urratzen lehiakortasuna babesteko arauak.

Foru arau honen ondorioetarako, irabazi asmorik gabeko entitateek ustiapen ekonomikoa egiten dutela ulertuko da bere kontura produkzio baliabideak edo giza baliabideak, edo horietako bakar bat, antolatzen dituztenean, ondasunen edo zerbitzuen produkzioan edo banaketan esku hartzeko asmoz. Entitatearen higiezinaren ondarea errentan ematea ez da hartuko ustiapen ekonomikotzat, ondorio horietarako.

3.⁴ Fundatzaileak, bazkideak, patroiak, estatutu ordezkariak, gobernu organoetako kideak eta ezkontideak, izatezko bikotekideak edo haietako edozeinen laugarren mailara arteko ahaideak, horiek barne, ez izatea entitateek egiten dituzten jardueren hartzaile nagusiak, eta haien zerbitzuak erabiltzeko baldintza berezirik ez edukitzea.⁵

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko ez ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueri, ez abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzeak, 20. artikulua lehenean apartatuko 8. eta 13 zenbakietan hurrenez hurren aipatzen dituen gizarte laguntzako eta kirol arloko jardueri, ezta Euskal Kultur Ondarea edo Espainiako Ondare Historikoa osatzen duten ondasunak artatu eta zaharberritzea helburu duten fundazioei ere, azken horien kasuan baldin eta Euskal Kultur Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea, Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legea edo kasuan kasuko Autonomia Erkidegoan aplikatzeko den legea ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

4. Patronuari, estatutu-ordezkaritari eta gobernu organoko kideari lotutako karguak doakoak izatea. Nolanahi ere, eginkizun hori betetzeak sortzen dituen gastuak ordaintzeko eskubidea izango da, horiek behar bezala frogatuta daudenean. Kontzeptu hura dela-eta jasotako kopuruak ezin izango dira handiagoak izan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudian zergapetu gabeko dietatzat hartuak izateko jasotzen diren mugak baino.

Herri onurakotzat hartutako elkartearen kasuan, ordezkaritza organoek ordainsariak jaso ahal izango dituzte; ez, ordea, fondo edo diru laguntza publikoen kontura.

Patronuek, estatutu-ordezkariek eta gobernu organoko kideek entitatearen ordainsariak jaso ahal izango dituzte zerbitzuak emateagatik, barne sartuta lan harremanaren barruan emandako zerbitzuak, patronatuko edo ordezkaritza organoko kide gisa dagozkien eginkizunak betetzeak dakartzan zerbitzuez bestelakoak direnean, baldin eta entitatearen arauetan jasotako baldintzak betetzen badira. Pertsona horiek ezin izango dute parte hartu entitatearen emaitza ekonomikoetan, ez beren kabuz eta ez tarteko pertsona edo entitatearen bidez ere.

⁴ Baldintza hau 2022ko martxoaren 10eko 1/2022 Foru Arauaren 5. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarri da indarrean (2022/03/14ko GAO).

⁵ Paragrafo hau maiatzaren 10eko 1/2024 FORU ARAUAREN 13. artikuluko apartatu batak aldatu du. Aipatutako foru araua 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen da. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2024/05/17ko GAO).

Zenbaki honetan jasotakoa merkataritza-sozietate partizipatuetan entitatea ordezkatzeko duten administratzaileei ere aplikatuko zaie, salbu administratzaile gisa jasotako ordainsariak ordezkatzeko entitatara itzultzen badira.

Hori gertatzen denean, administratzaileak jasotako ordainsaria salbuetsita egongo da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik, eta ez da derrigorrezkoa izango zerga horren kontutako atxikipenik egitea.

5. Entitatea deseginez gero, haren ondare osoa ematea foru arau honen 18tik 26ra bitarteko artikuluetan, biak barne, jasotako ondorioetarako mezenasgoaren entitate onuraduntzat hartutako entitateetako bati edo, bestela, izaera fundazionalakoak ez diren eta interes orokorreko xedeak dituzten entitate publikoei, eta, horrez gain, zirkunstantzia hori espresuki jasota egotea desegindako entitatearen estatutuetan edo negozio fundazionalan. Irabazi-asmorik gabeko entitate horiei aplikatuko zaie Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak partzialki salbuetsitako entitateei buruz dioena, eta, bereziki, arau horren 38. artikuluan ezarritakoa.⁶

Inoiz ere ez dira hartuko irabazi asmorik gabeko entitateetzat, foru arau honen ondorioetarako, iraungitze kasuetan ondarea eman duenari edo horren oinordekoei edo legatudunei itzultzea baimentzen duen arau juridikoak dituzten entitateak, salbu ondarea itzultzen bazaio mezenasgoaren entitate onuradunetako bati foru arau honek 18.etik 26.era bitarteko artikuluetan, biak barne, jasotako ondorioetarako.

6. Urtean behin txosten ekonomikoa egitea. Txostenean, ekitaldiko sarrerak eta gastuak zehaztu behar dira, kategoria eta proiektuen arabera bereizita, bai eta merkataritza-entitateetan duten partaidetza portzentajea ere.

Aplikaziozko kontabilitate araudiari jarraituaz urtean behin txostena egitera behartuta dauden entitateek zenbaki honetan aipatutako informazioa jaso beharko dute txosten horretan.

Arau bidez, txosten ekonomiko horren edukia, aurkezpen epea eta organo jasotzailea jasoko dira.

6. artikulua. Zerga helbidea.

Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga helbidea eta sozietate helbidea bat etorriko dira, baldin eta azken horretan entitatearen administrazio kudeaketa eta zuzendaritza benetan zentralizatuta badaude. Bestela gertatuz gero, kudeaketa edo zuzendaritza horien tokia izango da zerga helbidea.

Aurreko irizpideen arabera ezin denean zehaztu zerga helbidea non den, entitateek zerga helbidea Gipuzkoan dutela ulertu beharko da, baldin ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan edukiarik, Gipuzkoan ibilgetuaren balio handiagoa badute beste bi lurralde historikoetako bakoitzean dutena baino.

⁶ Paragrafo hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUAREN 6. artikuluko bigarren ordinalaren lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO) eta aldaketak 2019ko urtarilaren 1etik aurrera ditu ondorioak

II. KAPITULUA: Sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga⁷

7. artikulua. Araudi aplikagarria.⁸

Kapitulu honetan jasota ez dagoen arloetan, sozietateen gaineko zergaren araudia aplikatuko zaie irabazi-asmorik gabeko entitateei.

Guztiarekin ere, foru arau honen 4. artikuluko b) eta c) letretan aipatzen diren entitateen kasuan, aplikagarria izango da kapitulu honetan eta hurrengo kapituluaren xedatutakoa, betiere ulertuta sozietateen gaineko zergaren aipamenak ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzkoak direla. Kapitulu honetan aurreikusten ez den guztian ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren arauak aplikatuko dira.

8. artikulua. Errenta salbuetsiak.

Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita daude foru arau honetan aipatzen diren irabazi asmorik gabeko entitateen honelako errentak:

1. Ondoko sarreretatik datozenak:

a) Entitatearen xedeetan laguntzeko eratzean edo geroago jasotako emariak, barne sartuta ondare-hornidura gisa egindako ekarpen edo dohaintzak, bai eta foru arau honek 26. artikuluan araututako kolaborazio enpresarialeko hitzarmenei esker eta Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1998 Lege Orokorrak aipatutako babes publizitarioko kontratuei esker jasotako diru laguntzak ere.

b) Bazkide, laguntzaile edo ongileek ordaindutako kuotak, baldin eta bat ez badatoz salbuetsi gabeko ustiapen ekonomiko batetik eratorritako prestazioa jasotzeko eskubidearekin.

c) Subentzioak, salbu salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoak finantzatzera zuzendutakoak.

2. Entitatearen ondare higikor eta higiezinetik datozen errentak, hala nola: Dibidenduak eta sozietateen mozkinetako partaidetzak, interesak, kanonak eta alokairuak.

3. Ondasun edo eskubideak edozein titulu bidez eskuratuz edo eskualdatuz lortu diren errentak, barne sartuta entitate bat deseginez eta likidatuz lortutakoak.

4. Ondorengo artikuluan aipatutako ustiapen ekonomiko salbuetsiak gauzatzean lortutako errentak.

5. Zerga araudiari jarraituaz, irabazi asmorik gabeko entitateei esleitu edo egotzi ahal zaizkien errentak, baldin eta artikuluko honen aurreko apartatuak batean sartutaoerrenta salbuetsietatik badatoz.

⁷ Kapitulu honen izenburua otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUAren 6. artikuluko bigarren ordinalaren hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO) eta aldaketak 2019ko urtarilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

⁸ Artikulu hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUAren 6. artikuluko bigarren ordinalaren bost apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO) eta aldaketak 2019ko urtarilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

9. artikulua. Ustiapen ekonomiko salbuetsiak.

Sozietate Zergatik salbuetsita daude irabazi asmorik gabeko entitateek ondorengo ustiapen ekonomikoetatik lortzen dituzten errentak:

1. Entitatearen berariazko xedea betetzeko gauzatzen diren ustiapen ekonomikoetatik lortutako errentak.
2. Salbuetsitako ustiapen ekonomikoen, edo irabazi asmorik gabeko entitatearen helburu estatutarioak edo xedea betetzeko jardueren, lagungarri edo osagarri diren ustiapen ekonomikoetatik datozen errentak.

Ustiapen ekonomikoan ez dira lagungarri edo osagarri soilak direla joko, horrelako ustiapenen eragiketa bolumena, guztira, entitatearen eragiketa bolumen osoaren %25 baino gehiago baldin bada, dagokion zerga ekitaldian.

3. Garrantzi txikiko ustiapen ekonomikoetatik datozen errentak. Horrelakotzat hartuko dira gehienera 30.000 euroko eragiketa bolumena dutenak ekitaldian.

10. artikulua. Oinarri ezargarria zehaztea.

1. Irabazi asmorik gabeko entitateen Sozietateen gaineko Zergaren oinarri ezargarrian, salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoetatik etorritako errentak bakarrik sartuko dira.

2. Ez dira gastu kengarritzat hartuko, Sozietateen gaineko Zergaren arautegi orokorrak ezarritakoez gainera, honako hauek:

a) Errenta salbuetsiei soilik egoztekoak diren gastuak.

Zati batean salbuetsi gabeko erreteiei egoztekoak diren gastuak neurri honetan izango dira kengarriak, zehazki: Entitatearen eragiketa bolumen osoaren aldean salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoen ekitaldiko eragiketa bolumenak egiten duen portzentaiaren neurrian.

b) Kargapeko ustiapen ekonomikoei atxikiak ez diren ondare elementuen amortizaziorako erabilitako diru kopuruak.

Zati batean salbuetsitako jardueren atxikitako ondare elementuen kasuan, amortizazioan erabilitako diru kopuruak ez dira kengarriak izango, zehazki, ondare elementua jarduera horri atxikita dagoen portzentaiaren neurrian.

c) Salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoen emaitzen eta, bereziki, soberakinen aplikazio diren diru kopuruak.

11. artikulua. Balorazio arauak.

Irabazi asmorik gabeko entitate bat desegitean geratutako ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak, irabazi asmorik gabeko beste entitate bati eskualdatzen zaizkionean, foru arau honetako 5. artikuluko 5. zenbakian aurreikusitakoa aplikatuz, zerga ondorioei dagokienez, entitate hartzaileari baloratuko zaizkio, desegindako entitatean eskualdaketa egin baino lehen zeuzkaten balio berekin, eta eskuratze datak ere desegindako entitatean zituztenak gordeko dira.

12. artikulua. Karga tasa.

Salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoetatik lortutako errentei dagokien oinarri ezargarri positiboari % 10eko karga tasa ezarriko zaio.

13. artikulua. Kontabilitate obligazioak.

Irabazi asmorik gabeko entitateek Sozietate Zergatik salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoetatik errentak lortzen dituztenean, Sozietate Zergaren arauetan aurreikusitako kontabilitate obligazioak izango dituzte. Entitate horien kontabilitatea eramateko moduak bide eman behar du salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoei dagozkien sarrerak eta gastuak zein diren identifikatzeko.

14. artikulua. Atxikipenari lotu gabeko errentak.

Foru arau honen indarrez salbuetsiak diren errentak ez daude ez atxikipenari ez konturako sarrerari lotuta. Erregelamendu bidez zehaztuko da irabazi asmorik gabeko entitateek izango duten egiaztatze prozedura, atxikitze obligaziotik kanpo geratzeko ondorioetarako.

15. artikulua. Aitortzeko obligazioa.

Titulu honetan ezarritako zerga erregimena aukeratzen duten entitateek, beren errenta guztiak, salbuetsiak eta salbuetsi gabeak, Sozietateen gaineko Zergan aitortzeko obligazioa dute.

16. artikulua. Zerga erregimen berezia aplikatzea.

1. Erregelamendu bidez ezarriko da noiz eta nola sartu ahal izango diren irabazi asmorik gabeko entitateak titulu honetan ezarritako zerga erregimen berezian.

Behin aukera hori gauzatutakoan, entitatea erregimen horri lotuta geratuko da hurrengo zerga ekitaldietan ere, foru arau honetako 5. artikuluan ezarrita dauden betebeharrak betetzen dituen eta erregimen horri uko egiten ez dion bitartean; uko egitekotan, nolanahi ere, erregelamenduz ezarriko den eran egin beharko du.

2. Zerga erregimen berezia aplika dakion, entitateak bete egin behar ditu horretarako dauden betebeharrak eta errealtate baldintzak, eta frogatu ere egin beharko ditu.

3. Entitateak foru arau honetako 5. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzen ez baditu, bete ez dituen ekitaldiari, Sozietateen gaineko Zergan, udal zergetan eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, dagozkion kuota guztiak ordaintzeko obligazioa izango du, zerga horien araudien arabera, baita bidezko diren berandutza interesak ere.

Apartatu honetan ezarritako obligazioa, emaitzak eta sarrerak behar bezala aplikatu ez zireneko ekitaldiko kuotei buruzkoa izango da, baldin bete gabeko betebeharra foru arau honetako 5. artikuluko 1. zenbakian ezarritakoa bada, eta, aplikatu ez zireneko ekitaldiko kuotei eta horren aurreko lau ekitaldietakoei buruzkoa izango da, baldin bete ez dena artikuluko 5. zenbakian ezarritako betebeharra bada. Horretaz gainera, bidezko diren zigorrak ezarri ahal izango zaizkio.

III. KAPITULUA: Udal zergak

17. artikulua. Udal zergak.⁹

1. Ondasun higiezinaren gaineko zergatik salbuetsita egongo dira zerga horren araudiaren arabera irabazi-asmorik gabeko entitateen titulartasunekoak diren ondasunak, sozietateen gaineko zergan salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoak atxikitako ondasunak izan ezik.

2. Irabazi-asmorik gabeko entitateak jarduera ekonomikoen gaineko zergatik salbuetsita egongo dira foru arau honen 9. artikuluan aipatzen diren ustiapen ekonomikoengatik. Hala eta guztiz ere, entitate horiek alta aitortzea aurkeztu beharko dute zerga horren matrikulan, baita baja aitortzea ere, jarduerari amaiera emanez gero.

3. Balio gehikuntzak salbuetsita egongo dira hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergatik, baldin eta zerga hori ordaintzeko legeko obligazioa irabazi-asmorik gabeko entitate bati badagokio.

Irabazi-asmorik gabeko entitateek kostu bidezko lur eskualdaketak egiten dituztenean edo horien gaineko jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealak kostu bidez eratu edo eskualdatzen dituztenean, zerga horretatik salbuetsita geratuko dira, baldin eta lur horiek ondasun higiezinaren gaineko zergatik salbuetsita geratzeko beharkizunak betetzen badituzte.

4. Artikulu honetan ezarritako salbuespenak aplikatu ahal izateko, irabazi-asmorik gabeko entitateek kasuan kasuko Zerga Administrazioari, udal eskudunari edo Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari jakinarazi behar diote aurreko artikuluko 1. apartatuan araututako araubidea aukeratzeko dutela, eta, horrez gain, titulu honetan araututako zerga araubide bereziari buruzko baldintzak eta kasuak bete behar dituzte.

5. Artikulu honetan xedatutakoa toki ogasunen foru araudian eta udal zergak arautzen dituzten foru arauetan ezarritako salbuespenen kalterik gabe ulertuko da.

6.¹⁰ Zerga Administrazioaren egiaztapen ahalmenak eragotzi gabe, artikulu honetan ezarritako salbuespenak aplikatuko zaizkie, halaber, foru arau honetako 4. eta 5. artikuluetan ezarritako beharkizunak bete eta honako hauek aplikatzen dituzten entitateei: uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea, Fundazioen eta babes jardueren zerga araubidea arautzen duena; martxoaren 20ko 4/2019 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko irabazi asmorik gabeko Entitateen zerga araubideari eta Mezenasgorako Zerga Pizgarriei buruzkoa; uztailaren 12ko 16/2004 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko irabazi asmorik gabeko entitateen zerga-araubideari eta Mezenasgorako Zerga Pizgarriei buruzkoa; abenduaren 23ko 49/2002 Legea, irabazi asmorik gabeko entitateen eta mezenasgoaren aldeko pizgarri fiskalei buruzkoa; edo aurretik aipatutakoak ordezkatzeko duten zuzenbidezko arauak. Era berean, foru arau honetako 18. artikuluen i) letraren bigarren paragrafoan aipatutako organismo eta entitateei ere aplikatuko zaizkie.

⁹ Artikulu honi otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUAREN 6. artikuluko hirugarren ordinalaren bat apartatuak edukia eman dio. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO) eta indarrean jartzetik aurrera ditu ondorioak.

¹⁰ Apartatu hau 2023ko urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauaren 12. artikuluko gehitu du. Aipatutako foru arauak 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2023/01/23ko GAO).

III. TITULUA

MEZENASGOAREN ALDEKO ZERGA PIZGARRIAK

I. KAPITULUA: Entitate onuradunak

18. artikulua. Mezenasgoaren entitate onuradunak.¹¹

Titulu honetan jasotzen diren zerga-pizgarriak hemen ezartzen diren betebeharrak betetzen dituzten emaitza, dohaintza eta ekarpenei aplikatuko zaizkie, haien hartzaileak entitate hauek badira:

a) Foru arau honen II. tituluan ezarritako zerga araubidea aplikagarri duten irabazi-asmorik gabeko entitateak, eta, orobat, foru arau honen 4. eta 5. artikuluetako baldintzak bete izanik, beste foru lurraldeetan edo lurralde erkidean irabazi-asmorik gabeko entitateentzat une bakoitzean ezarritako zerga araubidea aplikatzen duten entitateak.

b) Foru arau honen 4. artikuluko c) letran aipatzen diren entitateak, foru arau honen 5. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenean.

c) Gipuzkoako Foru Aldundia, beste foru aldundiak, Estatu, autonomia erkidegoak, toki entitateak, eta aipatu diren administrazioen organismo autonomo eta antzeko entitate autonomoak.

d) Unibertsitateak eta haiei atxikitako zentroak.

e) Euskaltzaindia, Espainiako Institutua eta institutu horretan integratuta dauden errege akademiak, eta hizkuntza ofizial propioa duten autonomia erkidegoetan Euskaltzaindiaren antzeko helburuak dituzten erakundeak.

f) Cervantes Institutua, Ramon Llull Institutua, eta hizkuntza ofizial propioa duten autonomia erkidegoetan horien antzeko helburuak dituzten erakundeak.

g) Eusko Ikaskuntza, eta Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak.

h) Espainiako Batzorde Olinpikoa eta Espainiako Batzorde Paralinpikoa.

i) Espainiako Gurutze Gorria eta ONCE (Espainiako Itsuen Erakunde Nazionala).

Organismo ofizialek eta jarduera sozial edo asistentzialak irabazi-asmorik gabe egiten dituzten entitateek letra honetan sartutako entitateen tratamendu bera izango dute baldin eta, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batzuetan kokatuta egonik, haien helburuak letra honen aurreko paragrafoan aipatutako entitateek dituzten berdinak badira.

j) Ikerketa organismo publikoak.

II. KAPITULUA: Dohaintza eta ekarpenen zerga erregimena

19. artikulua. Emaitza, dohaintza eta ekarpen kengarriak.

¹¹ Artikulu hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUAREN 6. artikuluko bigarren ordinalaren sei apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO) eta aldaketak 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

1. Titulu honetan aurreikusitako kenkariak egiteko eskubidea emango dute hurrengo dohain, dohaintza eta ekarpen ezeztatzeko, puru eta bakunek, eta baita aurreko artikuluan aipatutako erakundeen alde egindako zerbitzuen doaneko prestazioak:

a) Dirutan, ondasunetan edo eskubidetan egindako emaitza eta dohaintzak.

b) Elkarreketako kide kuotak, ez orain ez gero prestaziorik jasotzeko eskubiderik ez badagokie.

c) Ondasun, eskubide eta balioen gaineko gozamen eskubide erreala eratzea, ordainik hartu gabe egiten bada.

¹²d) Euskal Kultur Ondarearen Erregistroan, maiatzaren 9ko Legean aipatutakoan, babes berezi eta ertaineko ondasun gisa inskribatuta dauden ondasunen dohaintzak edo emariak, Espainiako Ondare Historikoko ondasunen dohaintzak edo emariak, baldin eta horiek Espainiako Ondareari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legean aipatuta dagoen kultur intereseko ondasunen Erregistro Orokorrean edo Inbentario Orokorrean inskribatuta badaude, eta autonomia erkidegoek beren araudien arabera izendatu edo inskribatu dituzten kultur ondasunen dohaintzak edo emariak.

e)¹³ Kalitate bermatuko kultur ondasunen emaitzak, dohaintzak edo aldi baterako doako lagapenak, kalitatea Gipuzkoako Foru Aldundian kultura arloan eskumena duen departamentuak baloratuta, baldin eta museo jarduerak egitea eta ondare historiko-artistikoa sustatzea eta zabaltzea xede duten entitateen alde egiten badira.

Aldi baterako doako lagapenen aldia ezin izango da 25 urtetik gorakoa izan.

f) Sozietateen gaineko Zergari eta Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari dagokienez, jarduera egitean kokapen iraunkorra daukaten eta subjektu pasiboak diren pertsonen emandako doaneko zerbitzuak, Foru Arau honetako 22. eta 23. artikuluetan ezarritakoaren berariazko eraginetarako.

2. Dohaintza baliogabetzen bada Kode Zibilean aurreikusitako suposizioen bat kausa dela, dohaintza emaileak aplikatutako kenkariari dagozkien kuotak sartu beharko ditu baliogabetzea gertatutako zergaldian, baita, agian, legezkiokkeen berandutza interesak ere.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatuko da kide batek elkartetik bere borondatez alde egin eta ondare partaidetza bat jasotzen duenean, kide kuota arruntez aparte egin izandako ekarpenengatik.

20. artikulua. Emaitza, dohaintza eta ekarpenengatik egin daitezkeen kenkarien oinarria.

1. 18. artikuluan adierazitako erakundeen alde, ematen diren dohaintzak, dohainak, ekarpenak eta zerbitzuen doaneko prestazioak egiteagatik kenkarien oinarria hau izango da:

¹² Letra hau 2022ko martxoaren 10eko 1/2022 Foru Arauaren 5. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarri da indarrean (2022/03/14ko GAO).

¹³ Letra hau 2016ko azaroaren 14ko 5/2016 FORU ARAUAREN 7. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2016. urtean zerga aldatuta jakin batzuk onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2016/11/18ko GAO) eta aldatutako 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango ditu.

a) Emaizta dirutan eginez gero, haren zenbatekoa.

b)¹⁴ Ondasun edo eskubideen emari eta dohaintzetan, eskualdaketaren unean zuten kontabilitate balioa, eta, haren ezean, ondarearen gaineko zergaren arauen arabera zehaztutako balioa.

c) Ondasun higiezinaren gaineko gozamen eskubide erreala eratuz gero, gozamenak irauten duen zergaldi bakoitzean, balio katastralaren %2a aplikatuta ateratzen den urteko zenbatekoa, zergaldi bakoitzean zergaldi horretako egun kopuruari dagokion proportzioan.

d) Balioen gaineko gozamen eskubide erreala eratuz gero, gozamenak irauten duen zergaldi bakoitzean, gozamendunak jasotako dibidendu edo interesen urteko zenbatekoa.

e) Bestelako ondasun eta eskubideen gaineko gozamen eskubide erreala eratuz gero, eraketa egindako garaian Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren arauari jarraituz kalkulaturako gozamenaren balioari ekitaldi bakoitzean diruaren legezko interesa aplikatuta ateratzen den urteko zenbatekoa.

f) Euskal Kultur Ondarearen parte diren ondasunak eman edo dohaintza eginez gero, Eusko Jaurlaritzak zenbatetsitako balioa; Espainiako Ondare Historikoaren parte diren ondasunak eman edo dohaintza eginez gero, Kalifikazio, Balorazio eta Esportazio Batzordeak zenbatetsitako balioa; eta beste autonomia erkidegoetako Ondare Historikoaren parte diren ondasunak eman edo dohaintza eginez gero, haietako organo eskudunek zenbatetsitako balioa.

Aurreko paragrafoan aipatutako organoek egindako balio zenbatespenik izan ezean, Gipuzkoako Foru Aldundiak zenbatetsiko du balioa.

g)¹⁵ Kalitate bermatuko artelanen emaitzetan edo dohaintzetan, Gipuzkoako Foru Aldundian kultura arloan eskumena duen departamentuak egindako balorazioa. Departamentu horrek aldi baterako doan lagatzen diren ondasunen balorazioa zehaztu ere egingo du, eta, kasu horretan, kenkariaren oinarria kalkulatzeko, urte oso bakoitzeko ehuneko biko portzentajea aplikatuko zaio balorazioari.

h) Zerbitzuen doaneko prestazioetan, zerbitzuen prestazioaren kostua, bere kasuan barne dagoelarik lagatako ondasunen amortizazioa.

2. Aurreko apartatuan xedatu bezala zenbatetsitako balioa, ezingo da izan, nolanahi ere, eskualdatutako ondasunak edo eskubideak eskualdaketaren garaian merkatuan duen ohiko balioa baino handiagoa.

21. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako kuotaren kenkaria.¹⁶

¹⁴ Letra hau ekainaren 11ko 2/2018 FORU ARAUaren azken xedapenetako bosgarrenak aldatu du. Aipatutako foru arauak Ondarearen gaineko Zerga onartu du. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarri da indarrean (2018/06/19ko GAO).

¹⁵ Letra hau 2016ko azaroaren 14ko 5/2016 FORU ARAUaren 7. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2016. urtean zerga aldaketa jakin batzuk onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2016/11/18ko GAO) eta aldaketak 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango ditu.

¹⁶ Artikulu hau abenduaren 29ko 10/2006 FORU ARAUaren hamazazpigarren xedapen gehigarriak aldatu du. Aipatu foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga onartu du. Foru

1.¹⁷ Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek eskubidea izango dute kuota osotik foru arau honetako 20. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulaturako kenkariaren oinarriaren %20 kentzeko.

2. Kenkari honen oinarria ezin daiteke Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako likidazio oinarriaren %30 baino handiagoa izan.

22. artikulua. Dohaintzen kenkaria sozietateen gaineko zergaren zerga oinarria zehaztean.¹⁸

Sozietateen gaineko zergaren zerga oinarria zehazteko garaian, foru arau honen 20. artikuluan jasotakoaren arabera baloratutako emaitzen, dohaintzen, ekarpenen eta doako zerbitzu prestazioen zenbatekoa partida kengarritzat hartu ahal izango da.

Artikulu honetan aipatzen den partida kengarriaren aplikazioa adierazi behar den aukera bat da, eta aukera hori egiteko jarraitu beharrekoa izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak 115.3 artikuluan xedatutakoa eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak 128. artikuluko 2. eta 3. apartatueta ezarritakoa.

23. artikulua. Kuotako kenkaria ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan.¹⁹

1. Establezimendu iraunkorrik gabe jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legeak 21.1 apartatuan jasotzen duen kenkaria aplikatu ahal izango dute.

2. Establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek foru arau honetako aurreko artikuluan ezarritako kenkaria aplikatu ahal izango dute.

24. artikulua. Eraitza, dohaintza eta ekarpenetatik etorritako errentak salbuestea.

1. Foru arau honen 19. artikuluko mintzagai diren eraitza, dohaintza edo ekarpenen bat egitean azaleratzen diren ondare irabazi eta errenta positiboak salbuestia egongo dira egilearen errentari ezartzen zaizkion Pertsona Fisikoen

araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2006-12-30ko GAO). Eta aldaketak 2007ko urtarrilaren 1etik eurrera sortuko ditu ondorioak.

¹⁷ Apartatu hau 2014ko urtarrilaren 17ko 3/2014 FORU ARAUaren hemeretzigarren xedapen gehigarriak aldatu du. Aipatu foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga onartu du. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu denean sartu da indarrean (2013-01-22), eta 2014ko urtarrilaren 1aren geroztiko eraginak ditu.

¹⁸ Artikulu hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUaren 6. artikuluko lehenengo ordinalaren bat apartatuak aldatu du. Aipaturako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO) eta aldaketak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

3/2019 Foru Arauaren azken xedapen bakarreko bi apartatuak xedatutakoaren arabera, aldaketa hau 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietako autoliquidazioei bakarrik aplikatuko zaie.

¹⁹ Artikulu hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUaren 6. artikuluko hirugarren ordinalaren bi apartatuak aldatu du. Aipaturako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO) eta indarrean jartzetik aurrera ditu ondorioak.

Errentaren gaineko Zergan, Sozietateen gainekoan eta Ez-Egoiliarren Errentaren gainekoan.

2. Foru arau honen 19. artikuluko mintzagai diren emaitza, dohaintza edo ekarpenen bat egitean, lurren eskualdaketa edo horien gaineko jabaria mugatzen duten gozameneko eskubide errealeen eraketa edo eskualdaketa dela-eta azaleratzen diren gehikuntzak salbuetsita egongo dira Lurzoru Hiritarren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergan.

25. artikulua. Emaitza, dohaintza eta ekarpen kengarriak egiaztatzea.

1. Emaitza, dohaintza eta ekarpen kengarriak benetan egin direla egiaztatzea, entitate onuradunaren egiaztagiria bidez egingo da, erregelamenduz ezarriko diren betebeharrak beterik.

2. Entitate onuradunak emandako egiaztagiriei buruzko informazioa Zerga Administrazioari bidali behar dio, erregelamenduz ezarriko diren moduan eta epeetan.

3. Aurreko apartatueta aipatutako egiaztagirian puntu hauek agertu behar dute, gutxienez:

a) Dohaintza emaile eta dohaintza hartzaile diren pertsonaren eta entitatearen identifikazio fiskaleko zenbaki eta identifikazio datuak.

b) Entitate dohaintza-hartzailea foru arau honetako 18. artikuluan aipatu diren entitateen artean dagoela dioen berariazko adierazpena.

c) Emaitzaren data eta zenbatekoa, dirutan egina bada.

d) Emaitza dirutan egina ez bada, ondasuna ematea benetan gauzatu dela egiaztatzen duen dokumentu publikoa edo bestelako dokumentu kauto bat.

e) Entitate dohaintza-hartzaileak, bere xede espezifiko batetxe aldera, eman zaion objektua zertan erabiliko duen argitzeko azalpena.

f) Dohaintza ezeztatzina dela dioen berariazko adierazpena, nahiz horrek ez eragotzi dohaintzak ezeztatzeari buruzko aginduzko arauetan ezarritakorik.

25 bis artikulua. Entitate ez-egoiliar jakin batzuen alde egindako emaitza, dohaintza eta ekarpen kengarriak justifikatzea.²⁰

Entitate onuraduna 18. artikuluko b) letran eta i) letrako bigarren paragrafoan aipatzen direnetako bat denean, emaitza, dohaintza eta ekarpen kengarrien eraginkortasuna justifikatzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute onura fiskala aplikatzen duten zergadunek:²¹

²⁰ Artikulu hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUAREN 6. artikuluko bigarren ordinalaren zazpi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO) eta aldaketak 2019ko urtarilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

²¹ Paragrafo hau apirilaren 24ko 1/2020 Foru Arauaren 8. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Europako zuzentarauen transposizioarekin lotutako zerga aldaketa batzuk ekarri eta beste zenbait aldaketa tekniko sartzen ditu. Aldaketa foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2020/04/28ko GAO).

a) Aurreko artikuluko 1. apartatuan aipatutako eredu informatiboan jaso behar den informazioa biltzen duen dokumentua. Behar den kasuetan, dokumentu horri artikuluko bereko 2. apartatuan adierazitako dokumentazioa erantsiko zaio.

b) Entitate onuradunak foru arau honen 4. eta 5. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituela frogatzen duen dokumentazioa.

III. KAPITULUA: Beste mezenasgo era batzuen zerga erregimena

26. artikulua. Enpresek onura orokorreko jardueretan laguntzeko lankidetzak hitzarmenak.

1. Foru arau honetan aurreikusten diren ondorioetarako, enpresa batek onura orokorreko jardueretan laguntzeko lankidetzak hitzarmena eginak duela onartuko da, baldin 18. artikuluan aipatutako entitatearen batek enpresa laguntzailearen parte hartzea edozein bidetatik dela ere zabaltzeko konpromisoa idatziz hartu badu, bere xede espezifikoak betetzeko egiten dituen jardueretarako hartutako laguntza ekonomikoaren ordainetan.

Artikulu honetan definitu diren lankidetzak hitzarmenen esparruan laguntzailearen parte hartzearen zabalkundea egitea ez da zerbitzu emate bat.

2.²² Ordaindutako diru-kopuruak edo egindako gastuak gastu kengarritzat hartu ahal izango dira honako hauek zehazteko: entitate laguntzailearen sozietateen gaineko zergaren zerga oinarria, establezimendu iraunkor bidez jarduten duten zergadunen ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zerga oinarria, edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zuzeneko zenbatespenak biltzeko zergadunen jarduerak ekonomikoaren etekin garbia.

Artikulu honetan aipatzen den partida kengarriaren aplikazioa adierazi behar den aukera bat da, eta aukera hori egiteko jarraitu beharrekoa izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak 115.3 artikuluan xedatutakoa eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak 128. artikuluko 2. eta 3. apartatuak ezarritakoa.

3. Lankidetzak hitzarmen horiek betetzeko ordaindutako diru kopuruei aplikatu dakiekeen zerga erregimena bateraezina da foru arau honetan aurreikusitako beste zerga pizgarriekin.

27. artikulua. Onura orokorreko jardueretarako gastuak.

1.²³ Sozietateen gaineko zergaren zerga oinarria zehazteko, establezimendu iraunkor bidez jarduten duten zergadunen ez-egoiliarren errentaren gaineko

²² Apartatu hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUaren 6. artikuluko lehenengo ordinalaren bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO) eta aldaketak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

3/2019 Foru Arauaren azken xedapen bakarreko bi apartatuak xedatutakoaren arabera, aldaketa hau 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietako autolikidazioei bakarrik aplikatuko zaie.

²³ Apartatu hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUaren 6. artikuluko lehenengo ordinalaren hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO) eta aldaketak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

zergaren zerga oinarria zehazteko, edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zuzeneko zenbatespenera bildutako zergadunen jarduera ekonomikoaren etekin garbia kalkulatzeko, interes orokorreko xedeetarako egindako gastuak gastu kengarritzat hartu ahal izango dira.

Artikulu honetan aipatzen den partida kengarriaren aplikazioa adierazi behar den aukera bat da, eta aukera hori egiteko jarraitu beharrekoa izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak 115.3 artikuluan xedatutakoa eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak 128. artikuluko 2. eta 3. apartatueta ezarritakoa.

2. Aurreko apartatua aipatu den modura onura orokorreko xedeetarako egindako gastuak gastu kengarritzat hartzea, bateraezina da foru arau honetan aurreikusitako beste zerga pizgarriekin.

28. artikulua. Dohaintzan emateko artelanak eskuratzea.

1.²⁴ Partida kengarritzat hartu ahal izango da foru arau honen III. tituluko I. kapituluaren aipaturikotako entitateei dohaintza emateko erosiak diren artelanen eskurapen balioa, sozietateen gaineko zergaren zerga oinarria, establezimendu egonkorren bitartez jarduten diren ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zerga oinarria eta, zuzeneko zenbatespen araubidea duten enpresari eta profesionalen kasuan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga oinarria zehazteko.²⁵

Arte lanez ulertuko dira, artikulu honen eraginetarako, Erantsitako Balioaren gaineko Zergari buruzko arauak definitutako antigoaleko eta bildumarako gauzak, histori edo arte balioa dutenak.

2. Kenkari horretaz baliatu ahal izateko, dohaintza emateak honako betebeharrak eta baldintzak bete behar ditu:

a) Konpromisoa hartu, entitate dohaintza-hartzaileak dohaintza hartzea behin betiko onartzen duenez geroztik gehienez 5 urtekoa izango den aldi batean, ondasuna eskualdatzeko. Behin betiko onarpenerako nahitaezkoa izango da Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu eskudunak informea egitea, ondasuna artelantzat kalifikatzeko eta haren balioa zehazteko ondorioetarako. Informe hori egiteko epea hiru hilabetekoa izango da, dohaintzaren eskaintza aurkezten denez geroztik.

²⁶Dohaintza emandako artelanak babes bereziko eta babes ertaineko ondasun gisa inskribatuta badaude maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak aipatzen duen Euskal

3/2019 Foru Arauaren azken xedapen bakarrek bi apartatuak xedatutakoaren arabera, aldaketa hau 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietako autolikidazioei bakarrik aplikatuko zaie.

²⁴ Apartatu hau 2012ko abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUAren 9. artikuluko lehen ordinalaren bi apartatuak aldatu du. Aipaturiko foru arauak zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarri zen indarrean (2012-12-28ko GAO). Aldaketak indarrean jarri zenetik aurrera ditu ondorioak.

²⁵ Paragrafo hau 2016ko azaroaren 14ko 5/2016 FORU ARAUAren 7. artikuluko sei apartatuak aldatu du. Aipaturiko foru arauak 2016. urtean zerga aldaketa jakin batzuk onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2016/11/18ko GAO) eta aldaketak 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango ditu.

²⁶ Paragrafo hau 2022ko martxoaren 10eko 1/2022 Foru Arauaren 5. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarri da indarrean (2022/03/14ko GAO).

Kultur Ondarearen Erregistroan, aipatutako txostena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari eskatu beharko zaio. Artelan horiek ekainaren 25eko 16/1985 Legean aipatzen den Ondare Historikokoak badira edo edozein autonomia erkidegotako Ondare Historikoko parte badira, txostena organo eskudunei eskatu beharko zaie, haien araudian ezarritako arauak jarraituz.

Behin entitate dohaintza-hartzaileak eskaini zaion dohaintza hartzea onartzen duenean, dohaintza ezeztatzina bihurtzen da, eta ondasuna ezin zaio beste inori eman.

b) Entitate edo pertsona dohaintza-emailek ondasuna erositako egunaren ondorengo hilabetean eskaini behar dute dohaintza.

c) Ondasuna entitate dohaintza-hartzaileari behin-betiko eskualdatzen zaion arte pasatzen den denbora aldian, ondasunak eskuragarri egon behar du jendaurrean erakusteko eta ikerketarako, dohaintza emailearen eta hartzailearen arteko hitzarmenean zehaztutako baldintzetan.

d) Kenkari honetaz baliatuko diren pertsona edo entitateek ezingo dute prezio galeragatik dotaziorik egin, eskaintako dohaintzan sartuta dauden ondasunei dagokienez, goian aipatutako denbora aldi berean.

e) Entitatea likidatuz gero, artelanaren jabetza entitate dohaintza-hartzaileari esleituko zaio.

f)²⁷ Eskaintza jasotzen duen entitate dohaintza emailea foru arau honen II. tituluko I. kapituluaren jasotakoetako bat denean, entitate horretako kideek, fundatzaileek, patroiek, kudeatzaileek, ezkontideek eta izatezko bikotekideek, edo horietako edozeinen laugarren mailarainoko ahaideek, horiek barne, ezin izango diote pizgarri horri heldu.

3. Kopuru kengarria, guztira, ondasuna eskuratzeko kostua adinakoa, edo Administrazioak finkatutako tasazio balioa adinakoa izango da, Administrazioarena hura baino txikiagoa izanez gero. Azken kasu horretan, entitateak ondasuna dohaintzan ematek atzera egin dezake, komeni bazea.

4. Kenkaria konpromisoko aldian zehar zati berdinetan egingo da, aurreko 2. apartatuko a) letran aurreikusitakoaren barnean, ekitaldi bakoitzeko gehieneko mugatzat honako portzentajea harturik: Hamar zenbakia aipatutako aldiko urte kopuruaren artean zatituta ateratzen dena. Muga hori oinarri ezargarri buruzkoa izango da.

Enpresaburu eta profesionalen kasuan, muga hori kalkulatzeko, enpresa edo profesional jarduerak sortutako etekin garbiei dagokien oinarri ezargarriko zatia hartuko da kontuan.

5.²⁸ Artikulu honetan aipatzen den partida kengarriaren aplikazioa adierazi behar den aukera bat da, eta aukera hori egiteko jarraitu beharrekoa izango da

²⁷ Letra hau maiatzaren 10eko 1/2024 FORU ARAUaren 13. artikuluko apartatu biak aldatu du. Aipatutako foru araua 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen da. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2024/05/17ko GAO).

²⁸ Apartatu hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUaren 6. artikuluko lehenengo ordinalaren lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO) eta aldaketak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak 115.3 artikuluan xedatutakoa eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak 128. artikuluko 2. eta 3. apartatueta ezarritakoa.

6.²⁹ Artikulu honetan aurreikusitako kenkaria bateraezina izango da foru arau honen 21., 22. eta 23. artikuluetan aurreikusitako kenkariekin, ondasun berari dagokionez.

IV. KAPITULUA: Lehentasun aitortua duten jardueri eta aparteko interes publikoa duten gertakarietan laguntzeko programei aplikatzekoak diren zerga pizgarriak

29. artikulua. Mezenasgorako lehentasunezko jarduerak.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak lehentasunezko mezenasgo jardueren zerrenda bat osatu ahal izango du interes orokorreko xedeen esparruan, bai eta entitate onuradunak zeintzuk izango diren zehaztu eta jarduera horiek bete beharreko baldintzak eta beharkizunak finkatu. Jarduera horiei honako zerga onurak aplikatuko zaizkie:³⁰

a) Lehentasunezkotzat aitortutako jardueretarako bideratzen diren kopuruak gastu kengarriak izango dira oinarri ezargarria zehazteko bai Sozietateen gaineko Zergan, bai establezimendu iraunkor bidez jarduten duten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan eta, zuzeneko zenbatespen erregimenean dauden enpresari eta profesionalen kasuan, bai Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.

b)³¹ Sozietateen gaineko zergaren zergadunek eta establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek lehentasunezkotzat hartutako jardueretara bideratutako kopuruen 100eko 18 kendu ahal izango dute kuota likidotik, baita publizitate babeseko kontratuen kasuan ere.

Letra honetan aipatzen den kenkariari aplikagarriak izango zaizkio Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak 67. artikuluan ezartzen dituen arauak.

3/2019 Foru Arauaren azken xedapen bakarreko bi apartatuak xedatutakoaren arabera, aldaketa hau 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietako autolikidazioei bakarrik aplikatuko zaie.

²⁹ Aurreko 5. apartatua 6. apartatua izatea pasatu da 2016ko azaroaren 14ko 5/2016 FORU ARAUAren 7. artikuluko sei apartatuak aldatuta. Aipatutako foru arauak 2016. urtean zerga aldaketa jakin batzuk onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2016/11/18ko GAO) eta aldaketak 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango ditu.

³⁰ Paragrafo hau maiatzaren 9ko 1/2025 Foru arauaren 23. artikulua aldatu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onesten ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2025/05/15eko GAO).

³¹ Letra hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUAren 6. artikuluko lehenengo ordinalaren bost apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO) eta aldaketak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

3/2019 Foru Arauaren azken xedapen bakarreko bi apartatuak xedatutakoaren arabera, aldaketa hau 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietako autolikidazioei bakarrik aplikatuko zaie.

Letra honetan aipatzen den partida kengarriaren aplikazioa adierazi behar den aukera bat da, eta aukera hori egiteko jarraitu beharrekoa izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak 115.3 artikuluan xedatutakoa eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak 128. artikuluko 2. eta 3. apartatueta ezarritakoa.

c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek zuzeneko zenbatespenaren erregimenean egiten dituztenean jarduera ekonomikoak, lehentasun aitortua duten jardueretan erabilitako kopuruen 100eko 18 kendu dezakete kuota osotik, babes publizitarioko kontratuen indarrez ordaindutakoak ere barruan sartuta.

d) Aurreko lettran sartu gabeko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek, lehentasunezkoztat aitortutako jardueretan erabilitako kopuruen 100eko 30 kendu dezakete kuota osotik.

Aurreko c) eta d) letretan aurreikusitako kenkariaren oinarria ezingo da inoiz ere izan urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 90.2 artikuluan aurreikusten duen muga baino handiagoa.³²

2. Kenkariak, lehentasun aitortuko jarduerak egiten direneko ekitaldiari aplikatu behar zaizkio.

3. artikulua honetan aurreikusitako zerga onurak bateraezinak izango dira foru arau honen 21, 22, 23 eta 27. artikuluetan aurreikusitakoekin.

4. artikulua honetan xedatutako zerga erregimenaz baliatzeko, subjektu pasiboak, dagokion zerga aitortuarekin batera, agiri bat aurkeztu behar du, Gipuzkoako Foru Aldundian dagokion gaian eskua duen departamentuak emana, eta egiaztatzen duena kenkariaren arrazoi diren diru kopuruak ekitaldi horretan lehentasun aitortua duten jardueretarako erabili direla eta erregelamenduz eskatzen zaizkien betebeharrak betetzen dituztela.

30. artikulua. Aparteko interes publikoa duten gertakarietan laguntzeko programak.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak, salbuespenez, aparteko interes publikoa duten gertakarietan laguntzeko programak onartu ahal izango ditu.

2. Programa onartzen duen foru dekretuak, honako gaiak behintzat arautuko ditu:

a) Programaren iraupena zehaztuko du, hiru urterainokoa izan daitekeena.

b) Administrazio organo bat sortu beharko du, programa gauzatzeaz arduratua, eta hark ziurtatuko du egindako gastu eta inbertsioak helburu eta planekin ados daudela.

Organo horretan ordezkaritza izango dute, nahi eta nahi ez, gertakariarekin lotura duten administrazio publikoek eta, beti, Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuak.

³² Paragrafo hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUAREN 6. artikuluko hirugarren ordinalaren hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO) eta indarrean jartzetik aurrera ditu ondorioak.

Ziurtagiria emateko, beharrezkoa izango da Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko ordezkariak aldeko botoa ematea.

c) Gertakarian laguntzeko antolatuko diren jarduketan lerro nagusiak azalduko ditu, nahiz eta, gero, dagokion administrazio organoak garatu ahal izango dituen planen eta ekintza espezifikoetako programen bitartez.

3. Programei honako zerga onurak aplikatu ahal izango zaizkie:

Lehena. Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren barnean jarduera ekonomikoetarako zuzeneko zenbatespenaren metodoa erabili ohi dutenek, eta establezimendu iraunkor baten bitartez diharduten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergako zergadunek, dagokion administrazio organoak zehaztutako plan eta ekintza programak betetzeko egindako gastu eta inbertsioen %15eko kenkaria egin ahal izango dute zergaren kuota likidoan, gastu edo inbertsioak honako xedeekin eginak izan badira:

a) Ibilgetu materialaren elementu berriak eskuratzeko; nolana ere, lurrak horietan sartzen ez direla.

Ez dira joko dagokion administrazio organoak zehaztutako plan eta ekintza programak betetzeko egindako gastu eta inbertsioak, telekomunikazio edo elektrizitate zerbitzuen sareak jartzeko edo handitzeko egindako inbertsioak, ezta ur, gas eta abarren hornidurarako egindakoak ere.

b) Eraikinak eta antzekoak birgaitzeko, dagokion programari atxikitako espazio fisikoa edertzeko mesedegarria bada.

Lan horietan, etxebizitza gaietako jarduketa babestuak finantzatzeari buruzko arautegiak ezarritako betebeharrak bete beharko dira, baita programarekin lotura duten udalek eta lanak antolatzeko eta gauzatzeko ardura duen administrazio organoak ezar ditzaketen arkitektura eta hirigintza arauak ere.

c)³³ Urte anitzeko propaganda eta publizitate gastuak egitea, horiek kasuan kasuko gertaera sustatzeko baliozkoak direnean.

Publizitate-euskarriaren edukia, funtsean, gertaeraren zabalkundea egiteko denean, kenkariaren oinarria egindako inbertsioaren zenbateko osoa izango da. Bestela, kenkariaren oinarria inbertsio horren %25 izango da.

Lehen zenbaki honetan aipatzen den kenkariari aplikagarriak izango zaizkio Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak 67. artikuluan ezartzen dituen arauak.

Zenbaki honetan aipatzen den partida kengarriaren aplikazioa adierazi behar den aukera bat da, eta aukera hori egiteko jarraitu beharrezkoa izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak 115.3 artikuluan xedatutakoa eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko

³³ Letra hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren amaierako bigarren xedapenak aldatu du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak 128. artikuluko 2. eta 3. apartatueta ezarritakoa.³⁴

Bigarren. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zergadunek, Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek, eta establezimendu iraunkor baten bitartez diharduten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergako zergadunek, aurreko apartatuan ezarri bezala sortutako organoaren alde (halakorik balego) dohaintza edo ekarpenik eginez gero, eskubidea izango dute, horiengatik, foru arau honetako 21, 22 eta 23. artikuluetan aurreikusitako kenkariak egiteko.

Aurreko artikuluan aurreikusitako lehentasunezko mezenasgoaren erregimena gertakariarekin lotura duten programa eta jarduerari aplikatu ahal izango zaie, baldin gertakaria gauzatzeko ardura duen administrazio organoak onartu baditu, eta foru arau honetako 4. artikuluan aipatu diren entitateek edo organo horrek eginak badira.

Hirugarren. Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari atxikitako eskualdaketek kuotaren %95eko hobaria izango dute, baldin subjektu pasiboak apartatu honetako lehen puntuan aipatzen den kenkarirako eskubidea ematen duten inbertsioetan erabiltzen baditu eskuratutako ondasun eta eskubideak, zuzenean eta beste xederik gabe.

Laugarren. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren subjektu pasiboek %95eko hobaria izango dute arte, kultur, zientzi edo kirol ekintzei dagozkien kuota eta errekarquetan, ekintza horiek gertakaria ospatzerakoan egitekoak badira eta dagokion administrazio organoak prestatutako plan eta ekintza programetan sartzen badira.

Bosgarren. Dagokion programaren helburuak aurrera eramaten dituzten enpresa edo entitateek %95eko hobaria izango dute programa hori aurrera eramateko egindako eragiketek (ez beste ezerk) lezarzkiekeen udal zerga eta tasa guztietan.

4. Zerga Administrazioak egiaztatuko du ea zerga hobariak aplikatzeko beharrezkoak diren egoera edo betebeharrak guztiak gertatzen edo betetzen diren, eta, behar izanez gero, bidezko erregularizazioa egingo du.

5. Foru dekretuak ezarriko du aparteko interes publikoa duten gertakarietan laguntzeko programetarako aurreikusi diren zerga onurak aplikatzeko prozedura.

31. artikulua. Elkarrekotasuna.

Lehentasunezko jardueretarako eta aparteko interes publikoa duten gertakarietan laguntzeko programetarako aurreko bi artikuluetan aurreikusi diren zerga onurak, Estatuko eta beste foru lurraldeetako organo eskudunek aitorpen berdina egiten dieten jarduerari eta programei ere aplikatzekoak izango dira, baldin, haiek onartua duten arautegian beste hainbeste egiten bada Gipuzkoako Foru Aldundian onartutako jarduera eta programekin.

³⁴ Paragrafo hau eta aurrekoa otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUAREN 6. artikuluko lehenengo ordinalaren sei apartatuak aldatu ditu. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO) eta aldaketak 2018ko urtarilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

3/2019 Foru Arauaren azken xedapen bakarreko bi apartatuak xedatutakoaren arabera, aldaketa hau 2018ko urtarilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietako autolikidazioei bakarrik aplikatuko zaie.

V. KAPITULUA. Zerga onurak aplikatzeko baldintza komunak.³⁵

32. artikulua. Zerga onurak aplikatzeko baldintza komunak.³⁶

Titulu honetan jasotzen diren zerga onurak aplikagarriak izan daitezzen, mezenasgoa hartzen duten entitateek ezinbesteko izango dute jasotako dohaintza eta ekarpenen berri ematea Zerga Administrazioari, zerga araudian ezarritako eredu eta epeetan.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Alderdi politikoen aldeko dohaintzen zerga erregimena.³⁷

1. Foru arau honek jasotako erregimena aplikatuko zaie Alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoak 4. artikuluan aipatutako alderdi politikoen aldeko dohaintzei.

2.³⁸ Foru arau honen 21. artikuluan jasotzen den kenkaria bateraezina izango da, ekarpen edo dohaintza berberetarako, urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 22.b) artikuluan arautzen duen gastu kengarriarekin eta 92.2 artikuluan ezartzen duen kenkariarekin.

3.³⁹ Urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergarenak, aurreikusten ez duen guztian, alderdi politikoei zerga arau orokorrak eta, bereziki, foru arau honetan jasotakoak aplikatuko zaizkie.

Bigarrena. Sozietateen gaineko Zergari buruzko 1996ko uztailaren 4ko 7/96 Foru Araua aldatzea.

1. Aldatu egin da Sozietateen gaineko Zergari buruzko 1996ko uztailaren 4ko 7/96 Foru Arauaren 29. artikuluko 2. apartatuko e) letra, eta honela geratu da idatzita:

³⁵ Kapitulu hau otsailaren 11ko 2/2019 FORU ARAUAren azken xedapenetako lehenaren bat apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoan kultur mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak arautzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO).

³⁶ Artikulu hau apirilaren 24ko 1/2020 Foru Arauaren 8. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Europako zuzentarauen transposizioarekin lotutako zerga aldaketa batzuk ekarri eta beste zenbait aldaketa tekniko sartzen ditu. Aldaketa foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2020/04/28ko GAO).

³⁷ Xedapen gehigarri hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUAren 12. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

³⁸ Apartatu hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUAren 6. artikuluko bigarren ordinalaren zortzi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO) eta aldaketak 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

³⁹ Apartatu hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUAren 6. artikuluko bigarren ordinalaren zortzi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO) eta aldaketak 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

«e) Irabazi asmorik gabeko entitateak, baldin eta ez badagokie irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko foru arauan ezarritako zerga erregimena».

2. Aldatu egin da Sozietateen gaineko Zergari buruzko 1996ko uztailaren 4ko 7/96 Foru Arauaren 29. artikuluko 4. apartatua, eta honela geratu da idatzita:

«4. 100eko 10eko zerga ordainduko dute, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko foru arauan ezarritako zerga erregimena dagokien entitateek».

3. Uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauan, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoan, 38. artikulua idazpurua eta aipatutako artikulua 1. puntua aldatu dira, eta era honetan idatzita geratu dira:

«38. artikulua. Kultur Ondarea babesteko eta hedatzeko jarduketengatiko kenkariak; halaber, zinemagintzan eta liburuaren argitalpenetan inbertitzeagatiko kenkaria.

1. Sozietateen gaineko Zergari dagokionez subjektu pasiboak direnek hurrengo jardueretarako egiten dituzten inbertsio edo gastuen kuota likidoan 100eko 15eko kenkaria egin ahal izango dute:

a) Euskal Kultur Ondarearen ondasunak edo Espainiako Ondare Historikoaren edo beste komunitate autonomo bateko ondarearen ondasunak erosteko, erosketa Espainiako lurraldetik kanpo egindakoa eta aipatutako lurraldean sartzeko denean, baldin eta ondasunak lurralde horretan, eta titularren ondarearen barruan, hiru urtetan gutxienez mantentzen badira.

Kenkari horren oinarria izango da Irabazi Asmorik gabeko Erakundeen Zerga Erregimen eta Mezenasgoari emandako Zerga Pizgarriei buruzko Foru Arauak, 20. artikulua 1. atalean, f) letran ezarritakoari jarraiki egindakoa balorazioa.

b) Uztailaren 3ko 7/1999 Legeak, Euskal Kultur Ondareari buruzkoak eta ekainaren 25eko 16/1985 Legeak, Espainiako Ondare Historikoari buruzkoak, edo komunitate autonomoetako araudiak zehaztutakoaren arabera –betiere, aipatutako araudian ezarritako eskakizunak betetzen baldin badira–, kultur interesa dutela aitortutako bere jabetzako ondasunak zaintzeko, konpontzeko, zaharberritzeko, hedatzeko eta erakusteko.

c) Eraikinak birgaitzeko, teilatu eta fatxadak mantentzeko eta konpontzeko, eta bere jabetzakoak diren eta hiri edo arkitektura, arkeologi, natur edo paisaia guneetako babesgarriak diren edo Espainian dauden eta UNESCOk Munduaren Ondasun aitortutako azpiegiturak hobetzeko».

4. Aldatu egin da Sozietateen gaineko Zergari buruzko 1996ko uztailaren 4ko 7/96 Foru Arauaren 117. artikuluko a) letra, eta honela geratu da idatzita:

«a) Irabazi asmorik gabeko entitate eta instituzioak, baldin eta irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenaz eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei baliatzeko beharrezkoak betetzen ez badituzte».

5. Uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoak, 118. artikuluan adierazitakoa aldatu egin da, honela idatzita geratu delarik:

«118. artikulua. Salbuetsitako zergak.

1. Aurreko artikuluan aipatutako erakundeek lortutako hurrengo errentak egongo dira salbuetsita:

a) Haien objektu soziala edo berariazko helburua diren jarduerak egitetik sortutakoak.

b) Dohainik egindako erosketa eta lekualdaketatik sortutakoak, baldin eta erosketak eta lekualdaketak berariazko xede edo helburua erdiesteko egiten edo lortzen badira.

c) Berariazko xede edo helburua egiteari atxikitako ondasunen lekualdaketak ordain-trukez egiten direnean agerian jartzen direnak, lortutako kopuru osoa aipatutako berariazko xede edo helburuarekin lotutako inbertsio berriak egiteko denean.

Inbertsio berriak ondarearen elementua ematen edo eskura jartzen den dataren aurreko urtearen eta hurrengo hiru urteen arteko epearen barruan egingo dira, eta erakundearen ondarearen barruan mantenduko dira zazpi urtez; horretarako salbuespena izango da, Foru Arau honetako 11. artikuluan, 2., 3., 5. eta 6. puntuetan onartutakoen artean ezartzen den amortizazio metodoari jarraiki, bere bizitza erabilgarria txikiagoa denean.

Inbertsio berria egin dela ulertuko da, inbertsioa gauzatzen den ondare elementuak eskura jartzen diren datan.

Inbertsioa aipatutako epearen barruan egiten ez baldin bada, lortutako errentari dagokion kuota osoaren zatia sartu egingo da, berandutzako interesez gain, epea amaitu zen zergaldi ezargarriari dagokion kuotarekin batera.

Aipatutako elementuak finkatutako epea amaitu aurretik eskualdatzeak adieraziko du zergapetu gabeko zatiaren oinarri ezargarrian sartzea, baldin eta lortutako zenbatekoa berriro inbertitzen ez bada.

2. Aurreko puntuan adierazitako salbuespena ez da zabalduko ekonomi ustiapenen etekinetara, ez ondaretik sortutako errentetara, ez eta bertan adierazitakoak ez diren eskualdaketatik lortutako errentetara ere.

3. Ekonomi ustiapenaren etekinak izango dira, lan pertsonaletik eta horrekin batera kapitaletik, edo alderdi horietako bakar batetik, sortuak izanik, subjektu pasiboaren aldetik ekoizpen bitartekoak eta giza baliabideak edo horietako bat bere konturako agintzen direnean, ondasun edo zerbitzuen produkzioan edo banaketan parte hartzeko asmotan».

6. Uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoak, 119. artikuluan adierazitakoa aldatzen da, eta era honetan idatzita geratzen da:

«119. artikulua. Oinarri ezargarria zehaztea.

1. oinarri ezarg arria zehaztuko da Foru Arau honetako IV. Tituluan aurreikusitako arauen arabera.

2. Foru Arau honetan, 14. artikuluan adierazitakoez gain, hurrengo gastuak ez dira fiskaltasunari dagokionez kenkaridunak izango:

a) Salbuetsitako errentei bakarrik egotzitako gastuak. Salbuetsitako errentei zati batean egotzi dakizkiekeen gastuak kenkaridunak izango dira salbuetsita ez dauden ekonomi ustiapenak egitean lortutako eragiketa bolumenak duen portzentajea, erakundearen eragiketa bolumen osoari dagokionez.

b) Emaitzak ezartzeko kopuruak, eta zehazki, aurreko artikuluan, 1. puntuaren a) paragrafoan adierazitako salbuetsitako jarduerak mantentzera bideratutakoak».

7. Aldatu egin da Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 123. artikuluko 1. apartatua, eta honela geratu da idatzita:

«1. Zerga honen subjektu pasiboek Merkataritza Kodearen arabera edo beren arauetan ezarritakoari jarraiki eraman beharko dute beren kontabilitatea.

Edozein erataria, foru arau honetako VIII. tituluko XV. kapituluari adierazten diren subjektu pasiboek, salbuetsi gabeko errentei eta ustiapen ekonomikoei dagozkien sarrerak eta gastuak identifikatzeko moduan egingo dute beren kontabilitatea.

Hirugarrena. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko 1987ko abenduaren 30eko 18/87 Foru Araua aldatzea.

Aldatu egin da Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko 1987ko abenduaren 30eko 18/87 Foru Arauko 41. artikuluko 1. apartatuko A)letra, eta honela geratu da idatzita:

«A) Ondoko hauek daude zergatik salbuetsita:

a) Estatua eta lurralde nahiz erakundetako herri administrazioak eta horien ongintza, kultura, gizarte segurantzak, irakaskuntza eta helburu zientifikoduneko ezarpenak.

b) Irabazi Asmorik Gabeko Entitateen Zerga Erregimenari eta Mezenasgoaren Aldeko Zerga Pizgarriei buruzko Foru Arauko 4. artikuluan adierazten diren eta foru arau bereko 16. artikuluan aurreikusitako eran zerga erregimen berezian sartzen diren irabazi asmorik gabeko entitateak.

c) Aurrezki kutxak, zuzenean beren gizarte ekintzarako egindako erosketengatik.

d) Eliza Katolikoa eta Espainiar Estatuarekin lankidetzak hitzarmenak sinatu dituzten beste eliza, fede eta komunitate erlijiosoak.

e) Euskaltzaindia, Espainiako Institutua eta haren barneko erret akademiak eta Euskaltzaindiaren antzeko helburuak dituzten autonomia erkidegoetako instituzioak.

h) Espainiako Gurutze Gorria eta ONCE (Espainiako Itsuen Erakunde Nazionala)».

Laugarrena. Euskaltzaindia, Espainiako Institutua eta errege akademiak.

Foru Arau honetako 17. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaie Euskaltzaindiari, Espainiaren Institutuari eta haren barneko erret akademiei, eta berezko hizkuntza duten autonomia erkidegoetan Euskaltzaindiaren antzeko helburuak dituzten instituzioei.

Bosgarrena. Espainiako Gurutze Gorria eta ONCE (Espainiako Itsuen Erakunde Nazionala).

Foru Arau honetako 17. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaie Espainiako Gurutze Gorriari eta ONCEri (Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalari).

Seigarrena. Entitate erlijiosoetako fundazioak.

Foru arau honetan xedatutakoak ez ditu baldintzatzen ez Eliza Katolikoarekin egindako akordioak, ez eliza, fede eta komunitate erlijiosoekin Estatuak sinatutako lankidetzako akordio eta hitzarmenak, eta ezta entitate horien fundazioentzat emandako aplikazio arauak ere, horiek guztiek hautua egin baitezakete foru arau honetako 7. artikulutik 26.era ezarritako zerga erregimenaren alde, baldin eta Entitate Erlijiosoen Erregistroan izena emanda daudela egiaztatzen badute eta foru arau honetako 5. artikuluko 4. zenbakian ezarritako baldintza betetzen badute.

Zazpigarrena. Eliza Katolikoaren eta beste eliza, fede eta komunitate erlijiosoen zerga erregimena.

1. Aurreko xedapen gehigarrian aipatzen diren akordioetan erabakitakoa mantentzen bada ere, foru arau honetako 7. artikulutik 17.era bitartekoetan aurreikusitako erregimena aplikatuko zaie Eliza Katolikoari eta Espainiar Estatuarekin lankidetzak hitzarmenak sinatuta dauzkaten beste eliza, fede eta komunitate erlijiosoei.

2. Foru arau honetako erregimena beste elkarte eta entitate erlijioso hauei ere aplikatuko zaie, hots, Espainiar Estatuak eta Vatikanok sinatutako Gai Ekonomikoei buruzko Akordioko V. artikuluan adierazten direnei, 1992ko azaroaren 10eko 24/92 Legeak, Espainiako Entitate Erlijioso Ebanjelikoen Federazioarekiko Estatuaren lankidetzak onartzekoak, 11. artikuluko 5. apartatuan aipatzen dituenen, 1992ko azaroaren 10eko 25/92 Legeak, Espainiako Komunitate Israeldarren Federazioarekiko Estatuaren lankidetzak onartzekoak, 11. artikuluko 5. apartatuan aipatzen dituenen, eta, azkenik, 1992ko azaroaren 10eko 26/92 Legeak, Espainiako Komisio Islamiarrarekiko Estatuaren lankidetzak onartzekoak, 11. artikuluko 4. apartatuan aipatzen dituenen, nahiz eta erregimen hori aplikatzeko ezinbesteko baldintza den foru arau honetan irabazi asmorik gabeko entitateei eskatzen zaizkien beharrezkoak betetzea.

3. Espainiar Estatuak eta Vatikanok sinatutako Gai Ekonomikoei buruzko Akordioko IV. eta V. artikuluetan azaltzen diren Eliza Katolikoaren entitateak, Espainiar Estatuak beste eliza, fede eta komunitate erlijiosoekin sinatutako akordioetan agertzen direnak bezalaxe, mezenasgoaren entitate onuradunak izango dira foru arau honetako 18. artikulutik 26.era aurreikusitako ondorioetarako.

Zortzigarrena. Aurrezki kutxen gizarte ekintzak.

Desegiten badira eta beren fundazio-negozioan edo estatutuetan berariaz aurreikusita baldin badago, irabazi asmorik gabeko entitateek aurrezki kutxen gizarte ekintzarako utz dezakete beren ondarea, eta kasu horretan ez zaie 5. artikuluko 5. zenbakia aplikatuko.

Bederatzigarrena. Kirol federazioak.

1. Kirol federazioek kirol ikuskizunetan lortutako diru sarrerak ez dira sartuko salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoen sarreren % 40ko atalean, foru arau honetako 5. artikuluko 2. zenbakiko baldintzak aipatutakoan.

2. Selekzio nazionalen edo erkidegoetako norgelagokak, lagunartekoak nahiz ofizialak, antolatuz eta edozein bitartekoren bidez emanez edo zabalduz kirol federazioek lortutako errentengatik ez da Sozietateen gaineko Errenta ordainduko, baldin eta kasuan kasuko norgelagok antolatzeko eskumen osoa kirol federazio horiek badute.

3. Foru arau honetako 5. artikuluko 3. eta 4. zenbakietako baldintzak ez zaizkie ezarriko xedapen gehigarri honetan araututako entitateei.

Hamargarrena. Lehentasunezko jarduerak.

Foru arau honetako 29. artikuluan xedatutakoa betez, 2004ko ekitaldian lehentasunezko jarduerak izango dira ikerkuntzakoak mikroteknologiaren, genomikaren eta proteomikaren alorretan eta biomasaren nahiz bio-erregaien energia berriztagarrienetakoetan.

Hamaikagarrena. Arauei buruzko aipamenak.

Interes Orokorreko Jardueretan Ekimen Pribatuari Zerga Pizgarriak emateari buruzko 1995eko martxoaren 24ko 5/95 Foru Arauari buruz egindako arau aipamenak, foru arau honetako aginduei buruzkoak ere badirela ulertu behar da.

Hamabigarrena. Kooperatiben zerga erregimenari buruzko 1997ko maiatzaren 22ko 2/97 Foru Arauaren aldaketa.

Kooperatiben zerga erregimenari buruzko 1997ko maiatzaren 22ko 2/97 Foru Arauaren 42. artikuluko 2. eta 3. apartatuak honela geratu dira idatzita:

«2. Sozietateen gaineko Zergan, onura publikoko kooperatibei eta gizarte ekimeneko kooperatibei aplikatuko zaien zerga erregimena, Irabazi Asmorik Gabeko Entitateen Zerga Erregimenari eta Mezenasgoaren Aldeko Zerga Pizgarriari buruzko Foru Arauaren 7-16 artikuluetan ezarritakoa izango da. Era berean, onura publikoko kooperatiben eta gizarte ekimeneko kooperatiben alde pertsona juridikoek egindako emaitza eta ekarpenei, eta enpresa lankidetzako hitzarmenei, foru arau horretako III. tituluko II. kapituluko dagozkion artikulua eta 27. artikulua aplikatuko zaizkie.

3. Udal zergetan, Irabazi Asmorik Gabeko Entitateen Zerga Erregimenari eta Mezenasgoaren Aldeko Zerga Pizgarriari buruzko Foru Arauko 17. artikuluan ezarritako zerga erregimena aplikatuko zaie».

Hamahirugarren xedapen gehigarria. Foru arau honetako zerga onuren bateraezintasuna.⁴⁰

Foru arau honen artikuluetan eta haren xedapen gehigarrietan arautzen diren zerga onurak bateraezinak izango dira Gipuzkoako Lurralde Historikoan kultur mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriak arautzen dituen otsailaren 11ko 2/2019 Foru Arauak zenbateko berberetarako ezarritakoekin.

Hamalagarren xedapen gehigarria. Izatezko bikoteak⁴¹.

Foru arau honen ondorioetarako, testu honetan izatezko bikote esaten den guztietan Izatezko bikoteak arautzen dituen Eusko Jaurlaritzaren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako bikoteak aipatzen ari direla joko da.

⁴⁰ Xedapen gehigarri hau otsailaren 11ko 2/2019 FORU ARAUAren azken xedapenetako lehenaren bi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoan kultur mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak arautzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO).

⁴¹ Xedapen gehigarri hau maiatzaren 10eko 1/2024 FORU ARAUAren 13. artikuluko apartatu hiruak erantsi du. Aipatutako foru araua 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen da. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2024/05/17ko GAO).

Era berean, ulertuko da erreferentzia horiek beste autonomia erkidego batzuetako, Europar Batasuneko beste estatu batzuetako, Europako Esparru Ekonomikoko edo hirugarren herrialdeetako erregistro publikoetan antzeko moduan eratu eta inskribatutako izatezko bikoteei ere egiten zaizkiela.

Orobat, ezkontza bidezko ahaidetasun harremanei buruzko aipamenek izatezko bikotetik eratorritakoak ere hartuko dituzte barne.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena. Interes Orokorreko Jardueretan Ekimen Pribatuari Zerga Pizgarriak emateari buruzko 1995eko martxoaren 24ko 5/95 Foru Arauaren babesean emandako salbuespenen erregimen iragankorra.

Foru Arau honetako 4. artikuluan aipatzen diren entitateei Interes Orokorreko Jardueretan Ekimen Pribatuari Zerga Pizgarriak emateari buruzko 1995eko martxoaren 24ko 5/95 Foru Arauaren babesean emandako salbuespenak indarrean egongo dira 2005eko abenduaren 31 arte.

Bigarrena. Irabazi asmorik gabeko entitateek izendatutako merkataritza sozietateen administratzaileen erregimen iragankorra.

Foru arau hau indarrean sartu baino lehenago eratutako irabazi asmorik gabeko entitateek, foru arau honetako II. tituluan aurreikusitako zerga erregimen berezia aplikatzea aukeratzen badute, 2004ko abenduaren 31 arte izango dute denbora, 5. artikuluko 4. zenbakian merkataritza-sozietate partizipatuetan entitatea ordezkatzeko izendatutako administratzaileei buruz ezarrita dagoena betetzeko.

Hirugarrena. Estatutuak egokitzea.

Foru arau hau indarrean sartu baino lehenago eratutako irabazi asmorik gabeko entitateek, foru arau honetako II. tituluan aurreikusitako zerga erregimen berezia aplikatzea aukeratzen badute, 2005eko abenduaren 31 arte izango dute denbora, beren estatutuak 5. artikuluko 5. puntuan ezarritakoari egokitzeko.

Laugarrena. Zerga erregimen berezia aukeratzea.

2003ko ekitaldian Interes Orokorreko Jardueretan Ekimen Pribatuari Zerga Pizgarriak emateari buruzko 1995eko martxoaren 24ko 5/95 Foru Arauan jasotako erregimena aplikatu zuten irabazi asmorik gabeko entitateek foru arau honetako 16. artikuluan aipatzen den erregimen berezia aukeratu dutela joko da, ez baldin badiote berariaz uko egiten.

Era berean, aipatutako aukera, 2003eko ekitaldian edo 2004ko urtarrilaren 1aren eta Foru Arau hau indarrean sartzen den egunaren artean, adierazitako Foru Arauak zehaztutako erregimena hautatu duten irabazi asmorik gabeko erakundeen aldetik burutu dela ulertuko da, baldin eta aukera hori gauzatzeari berariaz uko egiten ez bazaio.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Foru Arau hau indarrean jartzen denean, bertan ezarritakoaren kontra dauden xedapen guztiak indargabetuko dira, eta bereziki, Interes Orokorreko Jardueretan Ekimen Pribatuari Zerga Pizgarriak emateari buruzko 1995eko martxoaren 24ko 5/95 Foru Araua.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehena. Arauak emateko ahalmena.

Gipuzkoako Foru Aldundiari baimena ematen zaio foru arau hau garatu eta gauzatzeko behar diren xedapen guztiak emateko, eta 18. artikulua gain diren mezenasgoaren onuradun diren entitateak zein diren zehazteko.

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak, II. tituluko II. kapituluaren eta bigarren xedapen gehigarriaren edukiak izan ezik, horrek 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan izango baititu ondorioak.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru arauak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- ***Abenduaren 29ko 10/2006 FORU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena (2006-12-30eko GAO)***

Hamazazpigarren xedapen gehigarriak 21. artikulua aldatu du.

- ***Uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUA, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituen (2008-07-11ko GAO)***

12. artikulua 5. artikularen 1. baldintzako b) letra eta lehen xedapen gehigarria aldatzen ditu.

- ***Abenduaren 23ko 8/2008 FORU ARAUA, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzekoa (2008-12-30ko GAO).***

Bigarren amaierako xedapenak 30. artikularen 3. apartatuaren c) letra aldatu du.

- ***4/2012 FORU ARAUA, uztailaren 4koa, udal zergen esparruan zenbait aldaketa sartzen dituen (2012/07/10eko GAO).***

Lehenengo xedapen gehigarriak 17. artikulua edukirik gabe uzten du.

- ***10/2012 FORU ARAUA, abenduaren 18koa, Aberastasunaren eta Fortuna Handien Gaineko Zergarena (2012/12/21eko GAO).***

Bere amaierako bigarren xedapenak 115. artikularen 10. apartatua eta hogeita zortzigarren xedapen iragankorraren 4. apartatua aldatu ditu. Aldaketak 2013ko urtarrilaren 1ean jarri diran indarrean.

- ***13/2012 FORU ARAUA, 2012ko abenduaren 27koa, zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen dituen. (2012/12/28 GAO)***

9. artikularen lehen ordinalak 2. artikulua eta 29. artikularen 1. apartatua aldatu ditu Foru Araua indarrean jartzen denetik aurrerako ondorioekin.

9. artikularen bigarren ordinalak 21. artikularen 1. apartatua aldatu du 2013ko urtarrilaren batetik aurrerako ondorioekin.

- ***2014ko urtarrilaren 17ko 3/2014 FORU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena. (2014/01/22 GAO)***

Hemeretzigarren xedapen gehigarriak 21. artikularen 1. apartatua aldatu du, 2014ko urtarrilaren batetik aurrerako ondorioekin.

- **2016ko azaroaren 14ko 5/2016 FORU ARAUA, 2016. urtean zerga aldaketa jakin batzuk onartzen dituen (2016/11/18ko GAO).**

Bere 7. artikuluko 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin, prezeptu hauek aldatzen ditu:

- 19.1. artikuluko e) letra.
- 20.1. artikuluko g) letra.
- 22. artikulua.
- 26. artikuluko 2. apartatua.
- 27. artikuluko 1. apartatua.
- 28. artikuluko 1. apartatuko lehen paragrafoa aldatzen da, haren egungo 5. apartatua 6. apartatua izatera pasatzen da eta 5. apartatu berri bat erantsen zaio artikuluko horri.
- 29.1 artikuluko b) letra.
- 30.3. Lehen artikuluko azken paragrafoa.

- **2/2018 Foru Araua, ekainaren 11koa, Ondarearen gaineko Zergarena. (2018/06/19ko GAO).**

Azken xedapenetako bosgarrenak 20. artikuluko 1. apartatuko b) letra aldatu du.

- **3/2019 Foru Araua, otsa-ilaren 11koa, 2019. urterako zerga neurriak onar-tzen dituen (2019/02/20ko GAO).**

Bere 6. artikuluko lehenengo ordinalak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, prezeptu hauek aldatzen ditu:

- Bat apartatuak 22. artikulua.
- Bi apartatuak 26. artikuluko 2. apartatua.
- Hiru apartatuak 27. artikuluko 1. apartatua.
- Lau apartatuak 28. artikuluko 5. apartatua.
- Bost apartatuak 29.1 artikuluko b) letra.
- Sei apartatuak 30.3 artikuluko lehen ordinalaren azken paragrafoa.

Bere 6. artikuluko bigarren ordinalak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, prezeptu hauek aldatzen ditu:

- Bat apartatuak 2. artikulua.
- Bi apartatuak 4. artikulua.
- Hiru apartatuak II. tituluko II. kapituluaren izenburua.
- Lau apartatuak 5. artikuluen 5. apartatua.
- Bost apartatuak 7. artikulua.
- Sei apartatuak 18. artikulua.
- Zazpi apartatuak 25 bis artikulua gehitu du.
- Zortzi apartatuak lehen xedapen gehigarriaren 2. eta 3. Apartatuak.

Bere 6. artikuluko hirugarren ordinalak foru araua indarrean sartzetik aurrerako ondorioekin, prezeptu hauek aldatzen ditu:

- Bat apartatuak 17. artikuluari edukia sartzen dio.
- Bi apartatuak 23. artikulua.
- Hiru apartatuak 29.1 artikuluko azken paragrafoa.

- ***2/2019 Foru Araua, otsailaren 11koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan kultur mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak arautzen dituenak. (2019/02/20ko GAO).***

Bere azken xedapenetako lehenak ondorengoak gehitzen ditu:

- Bat apartatuak III. tituluari V. kapitulua, barnean 32. artikulua duena.
- Bi apartatuak hamahirugarren xedapen gehigarria.

- ***1/2020 Foru Araua, apirilaren 24koa, Europako zuzentarauen transposizioarekin lotutako zerga aldaketa batzuk ekarri eta beste zenbait aldaketa tekniko sartzen dituenak. (2020/04/28ko GAO).***

Bere 8. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu:

- 25 bis artikuluen lehenengo paragrafoa.
- 32. artikulua.

- ***1/2022 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, 2022. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituenak (2022/03/14ko GAO).***

Bere 5. artikulua ondorengo prezeptuak aldatzen ditu:

- 5. artikuluko 3. beharkizuna.
- 19. artikuluen 1. apartatuko d) letra.

- 28. artikulua 2. apartatuko a) letraren bigarren paragrafoa.

- ***1/2023 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen (2023/01/23ko GAO).***

Bere 12. artikulua 6. apartatu bat gehitzen dio 17. artikuluari.

- ***1/2024 Foru Araua, maiatzaren 10ekoa, 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen. (2024/05/17ko GAO).***

Bere 13. artikulua ondorengo aldaketak sartzen ditu:

- Bat apartatuak 5. artikuluko 3. beharkizunaren lehen paragrafoa aldatzen du.
- Bi apartatuak 28.2. artikuluko f) letra aldatzen du.
- Hiru apartatuak xedapen gehigarri bat eranstean du, hamalagarrena.

1/2025 Foru Araua, maiatzaren 9koa, 2024. Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onesten dituen (2025/05/15eko GAO).

Bere 23. artikulua 29. artikuluko 1. Apartatuko sarrerako paragrafo aldatzen du.